

# KOSTUEN EGITURAK

Gure negozioa aurrera ateratzeko beharrezkoa da produktuak dakartzan kostu guztien berri jakitea, hau da, kostuen egituraren berri jakitea. Kostu egiturak dituen ezaugarriak honako hauek dira:

## KOSTU FINKOAK

Proiektua martxan jartzean, hainbat gastu edukiko ditugu, hala nola, aplikazioa sortzea, estudioa edo lokalaren dekorazioa, nas zerbitzaria, switch-a, aplikazioa plataforma desberdinetan publikatzea, webgunearen domeinua eta aparteko hainbat gastu. Dena dela, kide bakoitzaren hasierako inbertsioarekin hasierako gastu horiei aurre egiteko gai izango gara. Hortaz gain, behin proiektua martxan jarrita, hilean izango genituzkeen gastuak, ura, elektrizitatea, telefonoa eta wifia, autonomoaren kuota eta hosting zerbitzua horien artean, ez liratezke handiak izango.

## KOSTU ALDAKORRAK

Irakasleei, egiten duten bideo bakoitzeko diru kopuru bat ordainduko zaie, soldata hau, bideoaren arabera izango da. Dena dela, orokorrean, bideoak 10 minutu ingurukoak izango dira, 150€ inguruko gastua edukiko dutena. Guztira, lehenengo urtean, 100 bideo egiteko asmoa dugu. Beste kostu aldakor bat garraioa da, bada, enpresetara edota eskoletara egingo ditugu bisitak. Autoarekin egiten ditugun kilometroen arabera, kostua handiagoa edo txikiagoa izango da. Dena dela, garraioan 200€ inguruko kostuak izango ditugu.

## HASIERAKO KOSTUAK

APP	10.000€
PLAY STOREN PUBLIKATZEA	25€
APP STOREN PUBLIKATZEA	99€
DOMEINUA	20€
SWITCH	80€
NAS ZERBITZARIA	599€
ESTUDIOAREN DEKORAZIOA	5.000€
FOKOAK	70€
APARTEKO MATERIALAK	200€
IRAKASLEEN 100 BIDEO	15.000€
<b>GUZTIRA</b>	<b>31.093€</b>

## HILEROKO KOSTUAK

HOSTING	30€
TELEFONOA ETA WIFIA	140€
ARGIA	80€
URA	20€
SOLDATAK (5)	10.000€
AUTONOMOAREN KUOTA (5)	1.500€
GARRAIOA	200€
<b>HILEAN</b>	<b>11.900€</b>
<b>URTEAN</b>	<b>142.800€</b>



HASIERAKO KOSTUAK 32.500€-KO INBERTSIOAREKIN AMORTIZATUKO DITUGU